

Santa Barbara

Distantzia **7,4 km** | Desnibela **260 m** | Iraupena **2h15** | Tipologia **Itzulia** | Zedarriak **PR ibilbide osoan**

Donibane Lohizunetik (A63 autobideko 3. jalgibidea), D918 segitu Senpere eta Kanboko norabidean. Azkaine iragan eta oraino 5,5 km-tan ibili Ibarrun auzoraino, Senpere baino 2 km aitzinago kokatua. Aparkalekua, pilota plazaren inguru osoan.

GPS datuak: **UTM : 615 950 - 4801 295 Lat/Long : 43.35555/-1.56918**

Euskal etxe ederrak, mendetako harrizko zubi bat, itsasbazter atlantikotik mendietarainoko ikuspegi zoragarria, ezagutzea merezi duen ibar gordea eta basatia: horixe dira Santa Barbara gurutzerainoko itzuli-ibilaldiaren osagaiak, irisgarria eta joria.



1. ZATIA > Ibarrunetik Aroztegia etxaldera


UTM: 615950 - 4801295

Ibarrungo pilota plazaren parean eta etxe tradizional baten eskuinean, Aroztegia karrika segitu. Auzotik atera euskal etxe ederren artetik. 300 m urrunago, ezkerreko bidea hartu harrizko zubi zahar bat iragateko, arku bakarrean erreka zeharkatzen duena. Beste hegian, bidea Aroztegia etxaldera heltzen da. Aitzinera segitu errepidea hartuz.

2. ZATIA > Aroztegia etxaldetik Santa Barbara gurutzerara

UTM: 615490 - 4800975

Aroztegia etxaldearen justu ondotik, eskuinean den Bidartiako errepideari kasurik ez egin eta segidan eskuinera igo lurrezko oihanbidean. Zut-zut igotzen da, emeki hasi. T itxurako bidegurutzean, ezker segitu beste bide batean, eztiagoa. Erreka zeharkatu bezain laster, bideak bidexka bat gurutzatzen du: eskuinera igo bidexka urrutian. Oihanetik eta isatsetik ateratzen da eta, lepo ttipi eta belartsu baten heinean (ihizi barranda), Larrunerako ikuspegia eskaintzen du. Gaietako tontor-lerro nagusian segitu. Bidexka elkargunea gero eta utzi, eta zuzen Santa Barbara gurutzeraino igo.



3. ZATIA > Santa Barbara gurutzetik Uzkain errekarara

UTM: 614454 - 4801306

Gurutzetik berriz jaitsi bidexka beretik eta lehen bidegurutzean, eskuinera joan. Larrunen parean, bide on bat jaisten da, bide harriztatuaren bihurtzerantz, eskuin segitu behar dena (kanadar pasabidea). Bigarren kanadar pasabidearen ondotik, eskuin jaisten den bidean egon. Orduan T itxurako bidegurutzerara iritsi, bide berri batekin: ezkerrean jaisten segitu (borda aurritua), lurrezko bidea segitu eskuin, eta parean jaisten den bidexka harritsua, hesi baten bazterretik. Haritz bakarti eder baten azpian, atseden hartzeko aukera (bankua).

4. ZATIA > Uzkain ibarra

UTM: 613503 - 4800786

Patarraren behean, T itxurako bidegurutzea Uzkain errekatik hurbil iragaten da. Orain, ezkerreko bide hareatsu eta harritsua segitu, Uzkain ibarra igotzeko. Elhorgako belar-biltegian, haritz eder batzuen azpitik iragan eta ibarbasa baten bazterretik ibili. Ondotik, bideak argigune bat zeharkatzen du, eta erreka zeharkatzera jaisten da. Ibitik iragan eta urez bestaldeko bide nagusian ibili. Bigarren ibiaren ondotik, zuzen igo haritz ederren azpitik. Eskuinean den bideari kasurik ez egin, eta parean den lurrezko bidean igo, Uzkain ibarra uzteko.

5. ZATIA > Ibarrunera itzultzea

UTM: 615 048 - 4800180

Lepo bat iragatean (xeila ezker), eskuineko bideari kasurik ez egin, eta parean den lurrezko bide zabalean jaitsi, Ibarrunera itzultzeko. Bihurgune zenbait marrazten ditu eta, ibarraren hondoan, bidegurutze batera iristen da. Erreka nagusiaren ezkerreko hegitik doan bide zabalean, eskuin egon. Horrela Aroztegia etxaldea berriz topatu, eta zubi zaharreko pasabidea, Ibarrungo pilota plazara sartzeko.

INTERESGUNEAK

❖ Ibarrungo Birjinaren zubia (0,35 km)

Ibarrun Senpereko auzo zaharrena denez, badira omen zazpi mende harrizko zubi zaharra Urdazuri gainetik iragaten dela. Airezko arku bakar batek du erreka zeharkatzen eta bi maldako gaitzada sostengatzen. Uholdeen meneko eraikuntza, Birjina baten gerizapean, hara nondik datozen bere izena eta xoko dedikatua. UTM: 615 596 - 4801 213

❖ Santa Barbara gurutzea (2 km)

Santa Barbara gurutzeko ikuspegiak liluraturik, haatik, ez ahantz muinoaren gailurreko lurra begiratzea. Gurutzea baino 50 cm gorago, harri zirkulu baten azarnak ikus daitezke (harrespila), protohistoria garaiko presentzia baten lekukoa. UTM: 614 454 - 4801 306

❖ Zuhaitz lepatuak edo kapetatuak (5 km)

Uzkain ibarraren leku desberdinetan, itxura misterioitsuak dituzten zuhaitzak ikus daitezke: hantura bitxi batzuk enbor lodi baten gainean, eta adar lerdin anitz. Tokiko jendetza-belaunaldiek egindako mozte errepikatuen eta egur kentzeen ondorioz dute itxura hori. UTM: 614 548 - 4800 187

❖ Ibarbasoa (6,2 km)

Ibarbasoa erreka baten oreka ekologikoari ezinbestekoza zaio (lurren mantentzea, animaliaendako aterpea). Errekatik zenbait metro-tara, aldaera desberdinak aurkitzen ditugu eta, berez, lur fresko eta hezei egokitakoak: iratzeak, haltzak, sahatsak, sasiakaziak, lizarrak, platanok, xarmak, intusak. UTM: 615 344 - 4800 514

EKIPAMENDUAK ETA ZERBITZUAK

Ibarrun, pilota plaza, ur gunea, komunak, kanpoan bazkaltzeko mahaiaik UTM: 615 975 - 4801 313

Ibilbideen erabilbidea

ZAITASUN MAILEN ADIERAZLEAK

Oinezkoen mendi ibilbideak zailtasunaren arabera sailkatuak dira zirkuitu bakoitzaren fitxa praktikoa.

Gisa horretan, Oinezko Ibilaldien Frantziako Federazioaren gomendioak jarraitzen ditugu.

Oso erraza: 2 oren baino guttiagoko ibilaldia.

Familian egiteko arras egokia, bide ongi markatuetan.

Erraza: 3 oren baino guttiagoko ibilaldia.

Familian egin daiteke. Bidexka batzuetan pasagune zailxeagoetan pasatuz.

Ertaina: 4 oren baino guttiagoko ibilaldia. Ibiltzeko ohitura duten ibiltarientzat. Batzutan kirol mailako lekuetan edo desnibela duten maldetan.

Zaila: 4 oren baino gehiagoko ibilaldia. Ohitura duten ibiltari

kirolarientzat. Ibilbidea luzea edota zaila da (desnibelatua, pasagune korapilatsuak).

MENDI BIZIKLETAZKO IBILALDIAK:

Oso erraza: bide zabala eta gurpiletarako egokia; 300 m baino guttiagoko desnibela.

Erraza: gurpiletarako nahiko egokia den bidexka; 300m baino guttiagoko desnibela.

Ertaina: bidexka teknikoak, 800 m baino guttiagoko desnibela.

Zaila: bidexka oso zaila, 300 eta 800 m arteko desnibela.

DESNIBELA

Fitxetan agertzen den desnibela, igoera guzrien gehiketa da.

IBILALDIAREN IRAUPENA

Zirkuitu bakoitzarentzat emana den iraupena gutxi gorabeherakoa da.

Kontuan hartzen ditu ibilbi-dearen luzetasuna, desnibela

eta izan litezkeen zailtasunak. Ibilaldi denbora geldialdirik gabe kalkulatu da.

PR® LABELIZATUAK DIREN IBILBIDEAK

Label horren bitartez, Oinezko Ibilaldien Frantziako Federazioak onesten du oinezko ibilbide andana bat, kalitate irizpideen arabera. Hautua egiten da, plazer irizpideen, irizpide teknikoaren, turismo eta ingurumen irizpideen arabera (informazio gehiagorako: www.ffrandonnee.fr)

GPS DATUAK

Abiapuntuaren datua, latitude/longitudetan ematen da, zure ibilgailuaren GPSan sar dezazun. Gainerako datuak (ibilbi-dearen geldiguneak) UTM datuetan emanak dira. Hona erreferentzia zko formatua: WGS 84 - UTM 30T

Jokamolde egokiak mendi ibilaldietan

Ipar Euskal Herriko bidexketan ibili nahi bada, natura errespetatzen duen jokamoldea izan behar da, baina baita lurralde hori biziarazten duten emazte eta gizonak errespetatzen dituen jokamoldea ere. Horretarako, garrantzitsua da arau batzuk errespetatzea.

Abiatu aitzin, presta zaitez

- Ez zaitezela abia beharrezkoa den materialik gabe (mapa, ura, jantzi egokiak, etab.).
- Ez zaitezela bakarrik abia edo, hala eginez gero, hurbileko bati edo herriko etxeari jakitera emaiotzu (zenbait lekutan telefono sarrerik ez da eta ezin atzemana bilaka zaitezke).
- Erreketako ura ez ezazula edan eta ez zaitezela honetan baina.
- Eguraldiari buruz informatu zaitez, erabat alda daiteke. Jakinean izan zaitez garai hauetaz: lur-erretze, ihizi, oihan-lanetako eta abar.

Natura zain ezazu

- Zakua har ezazu zure hondakinak eramateko.
- Abereak urrunetik eta isilik beha itzazu.
- Basalorerik, baiarik edota ondorik ez ezazula bil baimenik gabe.
- Lekuan emana den seinaleetika errespetatu ezazu eta zaude bidexka zedarrituetan.

Laborantza eta artzaintza aktibitateak errespetatu itzazu

- Autoan ibil zaitez emeki abere taldeetatik hurbiltzean.
- Autoa aparka ezazu horretarako antolatutako diren lekuetan, zirkulazioa ez trabatzeko
- Ez zaitezela ibiltzera joan zure zakurrarekin, bestela, loturik atxik ezazu.
- Xeilak hets itzazu, handik pasa ondoren.
- Ibilbideen gaindi dauden jabego pribatuak errespetatu itzazu.
- Libre diren animalengandik urrun egon zaitez eta ez itzazula bazka.
- Ez ezazula surik eta barbakoarik pitz.
- Kanpa ezazu baimenduak diren gunetan bakarrik.

Zure hondakinen kudeaketa

Zure ibilaldietan, hondakinak zure bizkar-zakuan atxiki itzazu. Etxerat heldzerakoan, hondakinak bereiz itzazu eta bigarren bizi bat ukan dezakete!

ZENBAKI BALIAGARRIAK

- Météo France:
08 99 71 02 64 edo 32 50
edo www.meteofrance.fr

- Sokorriak: Larrialdietarako zenbakiak: 112 - SAMU 15 - SUHILTZAILEAK 18



ZURE IRITZIA GURE BIDEKHEI BURUZ

Proposatzen dizkizugun ibilbideak arreta handiz landu ditugu. Zure irudipenak eta oharak gure bidexken egoerari buruz interesatzen gaituzte, eta bidexkak egoera onean atxikitzeak aukera ematen digute. Gonbidatzen zaitugu edozein arazo edo ohar baliagarriak jakinaraztera: sentinelles.sportdenature.gouv.fr

HELBIDE BALIAGARRIAK

Euskal Elkargoko Turismo Bulegoa
Turismoko Harrera bulegoak:

- EZPELETA, karrika nagusia
+33(0)5 59 93 95 02
- SENPERE, pilota plaza karrika
+33(0)5 59 54 11 69
- AINHOA, karrika nagusia
+33(0)5 59 29 93 99
- SARA, Herriko Etxea
+33(0)5 59 54 20 14
- AZKAINA, Olhetako bidea
+33(0)5 59 54 00 84
- URRUNA, René Soubelet plaza
+33(0)5 59 54 60 80

Kanboko Turismo Bulegoa
Avenue de la mairie
+33(0)5 59 29 70 25

PROFESIONALAK

Brevetadun profesional eta animatzaile anitzek laguntzen zaituzte ezagutuak diren bidexketatik kanpo. Haien zerbitzuetaz gozatzeko, harremanetan jar zaitez Euskal Elkargoko Turismo Bulegoaren turismoko harrera bulegoekin.

ZEDARRITZATZE ITUNA

Hemen aurkezten dizkizugun bidexkak oinezkoen ibilbideak dira (PR®) eta horiz markatuak dira. Halarik ere, bide zati batzuk ibilbide luzeekin (GR) batera litezke; eta kasu horietan, marka zuri-gorri jarraitu beharko zaizkie. Ibilbide fitxetan zehaztuko zaizu hori.

	PR® TOKIKO BIDEKKA	GRP® TOKIKO IBILBIDE LUZEA	GR® IBILBIDE LUZEA	VTT BIDEKKA
Norabide ona	—	—	—	▲
Itzul ezker	↶	↶	↶	◀
Itzul eskuin	↷	↷	↷	▶
Norabide okerra	✗	✗	✗	✗